



ERDIPURDIKERIA SOZIALISTA

Orain, batasunera deika hasi dira denak, eta batibaino gehiagori bildur ematen dio uhin berri honek. Baita neuri ere. Baina, benetako pluralismorik iritxi dezagun, beharrezkoa iruditzen zait, lehenengo batasunetik pasatzea. Bestela ez sozialismorik, ez pluralismorik, izango dugu.

Izan ere, joan den berrogei urte hauetan, ezer ezagutu badugu, goitik beherainoko batasuna izan da. Batasuna baino gehiago uniformismoa. Hemen inork ez zuen ezer pentsatzen, ez esaten, ez erabakitzen: makineriak pentsatzen eta esaten eta erabakitzen zuen dena.

Gero, badirudi beste muturrera jo dugula, berdin pentsatzen duen pertsona birik ez dagoela. Dakizun bezalako pluralismoa sortu dugu. Mila talde badugu. Eta horizonteak zabaldu ditugula, ematen du.

Makineria berria

Baina, zer gertatzen da? Talde eta Alderdion arteko harremanak ere makineria bat bihurtu dira. Batek hau esan badu, ia mekanikoa da, besteak zer esan behardo duen.

Berriz ere inork ez du ezer pentsatzen eta erabakitzen; mekanismo horrek pentsatzen eta erabakitzen ditu. Guzian artean egindugun zirkulohertsian jira eta buelta gabiltza, beti puntu berean.

Talde ugari dago. Baina talde ugari-

lako.

Egungo nazionalistak asko zor diogu Bakunini, Parisen azken Maiatzeko iraultzaileek zor dioten bezala eta ziur gaude, hemendik aurrera, bere teoriak ikasiak izango direla nahiz eta burjesiak eta "marxista" klasikoek oso ondo ez ikusi.

(1) Michael Bakunin E.H. Carr-Ed. Grijalbo.

(2) Michael Bakunin Selected Writings Edited and Introduced by Arthur Lehning

(3) Dios y el Estado M. Bakunin Biblioteca Jucar.

(4) Ni Dieu ni Maitre Anthologie de Anarchisme 1, Daniel Garin petit Colletio Maspero.

B. BAKAIKOA

tasunak ez du pluralismoa aseguratzeko: pentsamentua eta ekintza aberasten. Une honetan txirotu egiten duela, esango nuke. Taldeok beren buruaren definizioak eman eta eman aritu behar dute eten gabe, perfila galduko ez badute. Ateratzen den papereria ugaria irakurtzen baduzu, lauzpost paper irakurri orduko aspertu egiten zara. Ia denek taldearen definizioari serbitzen diote. Talde kontzientziari. Beti proklama eta protesta berdinak. Metodo berberak. Definizioak besterik ez. Beti gauza bera. Zirkulo hertsia bat. Bere baitan hertsita dago euskal ezkerria.

Mediokreen erreinua

Mediokreen erreinua da, eginda dautzaguna. Taldetxo bakoitzak bere profetak ditu, bere teorikoak eta jakintsuak eta apostoluak eta sibilak eta druidak eta derbitxeak. Denak berdinak, funtsean, talde bateko ala beste. Egia esateko, horietako gehienek ez dute berek interesik batere. Baina halako talderen profeta edo derbitxe direlako, begiratu egin behar izaten diegu, interesante dira.

Eginda dukagun mekanismoak mediokritatea promozionatzen du. Alegia, jende pila bat enplegatzen du. Lan faltazko denboratan bada zer bait, hainbeste jenderi lan ematea. Baina mediokritatea promozionatzen du.

Edozein artaburuk urrea balio du, sigla egokiak jantzi baditu. Inportantea ez bait da problemak egitera mugatzen garenaz gero- zein zer den, zer esaten duen; ezpada zein talderen izenean jeiki den. Taldeak ematen dio interesea.

Bestalde, mediokreak lan erraza dauka. Talde bakoitzak "bere" politikoak, historiazaleak, juristak, "bere" langileak eta "bere" intelektualak eta idazleak erabili nahi ditu, eta erabili behar izaten ditu, talde independentzia salbatzeko: mediokritatea propozionatzen du. Eta, alderantziaz, talde ttipi batetan mediokreak erraz ailegatzen dira Obispo eta Aita Santu izatera.

Bakoitzak hamar mila gauza batera egin behar honek ere - taldeak hala eskatzen bait du, basiaren premiei erantzuteko - mediokritatera obligatzen du.

Batasuna

Batasuna ez da, beste gabe, gaitz guzaien erremedioa. Baina batasunak eginkizun eta eginbide berriak sortuaz, polibilibitate berriak irrikiko lituzke: bakoitza bere gauzara dedikatzeak posibilitatea, lehenengo. Erdipurkikeria jenerala gainditzeko bidea, hortakoz. Eta eginkizun berrietara zabaltzeko modua, betiko zirkulo hertsietan ibili gabe.

Batasunetik pasatzen da egizko pluralismora bidea.

JOXE AZURMENDI

askatasuna izatea nahi badu, gizartean integraturik egon behar du. Gizon liberrik ez dago bakartatean; hau idealismoa litzateke. Ez dago askatasunik ondoan dauden pertsona eta herri guztiak libre ez badira, estaduen menpetasunik gabe noski.

Bakunintzat estadauren aurkako rebelioa erraza da, autoritatearen agindua baita eta pertsona guztiak autoritatea gazi ikusten baitute.

Bakuninen nazionalismoa eta nazioartekotasuna (4)

Justizia, bakea eta libertatea sortzeko Bakuninen baitan, Europako Estatu markoetatik aparte egon behar lukete estatu berri hauek, bestela helburu horiek lortzea ez da posible. Nazio guztiak, nahiz handiak nahiz txikiak, nahiz probintziak izan, nahiz komunak, beren eskubide osoak dituzte bere buruaren jabe izateko.

Erabat utzi behar ziren estatu zaharrik ezarritako mugak eta beste nolako "deretxo historiko". Estaduek, historia zaharren gauza fosilizatuak bezala gerratu behar zuten Bakuninen ustean.

Nazionalitate gaiza naturala bezala izango da, ez estadauak ezarritakoa. Iraultzaileek nazionalitatea eskatzen badute eman egin behar zaie; baina reaktionarioek eskatzen badute ez, munduko iraultza eta askatasunaren aurka bait legoke.

Nekerik gabe Eslaboen herrien alde gatazkakutako da, bai hitzez, bai ekintzez Dresden erakutsi zuen bezala. Austria-Hungariako inperio eta Prusiako inperioaren aurka agertuko da, Tzaren aurka agertzen zen bezala, nazioak zapaltzen zitue-